

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

EZ HANKA EZ BURU

Bizilagun onak



ARITZ GALARRAGA

Ez dakit adina izango den, baina gero eta zailagoa zait liburu bat, liburu konkretu bat, bila ari naizen liburu hori aurkitzea etxe-ko apalategietan, denbora tarte arrazoizko batean –azkenean beti bukatzen baitut aurkitzen, hain da handia nire burugogorke-ria-. Garai batean ez zen hala, azkar samar aurkitzen nuen bilatzen nuena. Eta seguru ez dela oroitzeko gaitasunaren gutxitzea soilik; apalategiak betetzen dituzten liburuen bolumen gero eta handia-goak ere izango du zerikusia, eta bolumen gero eta handiago horrek apalategien barne ordenan, segur aski nik bakarrik ezagutzen dudana ordena horretan eragin duen desordenak. Uste dut iritsi dela eguna: ordena berri bat eskatzen du gure bibliotekak.

Baina zein da biblioteka baten ordena egokia? Areago, ba ote dago ordena egokirik? Eta areago oraindik, zer demonio da ordena deitzen dugun hori? Roberto Calassori kasu eginez gero, biblioteka baten ordena egokia ezin daiteke izan plurala baino, biblioteka hori erabiltzen duen pertsona bezain plurala behintzat. Batzuetan berregin dezake erabiltzailearen pentsamenduaren egitura. Baina biblioteka perfektuaren urrezko araua beste bat da, bizilagun onarena: alegia, liburu jakin bat bilatu, baina ondoan dagoen liburua hartzen bukatzen baduzu. Liburu batzuk ez baitira eskuratzen berehalakoan irakurtzeko, baizik eta denbora batera. Maiz sorpresa hartzen da, bazeneukala ere ez zenekien liburu bat aurkitzean. Izan daitezke gainera liburu egotziak, beste lekuren batetik kanporatuak, trabagarriak. Zutabe hauetan beti paratuko gara irakurketa salbaiaren alde.

Biblioteka bat ordenatzeak ur sakonak mugi ditzake. Biblioteka bat ordenatzeak inoiz ez du soluziorik izango, are ez luke soluziorik izan behar, etengabeko mugimenduan dagoen organismoa baita. Biblioteka bat izan beharko litzateke plazer hutsez begiratzen duzun paisaia bat. Beste baterako utziko dut berriz ordenatzeko lana. ●

ASKATASUNA,
EZ DUT BESTERIK
ESKATZEN...



ADUR

EKONOMIAREN TALAIAN

Zatiketa sindikala



JUAN MARI ARREGI

Maiatzaren Lehena egin eta hurrengo eguneko prentsan titularrak bat zetozen: pandemiak eta banaketa sindikalak mugatu dituzte manifestazioak. Egia da pandemiarena muga berria dela, nahiz eta bigarren urtez jarraian izan. Baina banaketa sindikalarena ez da berria.

Euskal Herriko kaleek maiatzaren 1ean beste behin erakutsi dute jadanik tradizioa dena ustezko “demokrazia” iritsi zenetik. Sindikatu bakoitza bere banderekin, bere ordutegiarekin, bere ibilbidearekin eta bere kontsignekin. Eredue horretatik urrun geratzen dira frankismoaren garaian ezkutu-egiten ziren Maiatzaren Lehen horiek, non elkartuta agertzen ginen.

Frankismoaren osteko errealtate sindikal tradizional honek manifestarien presentzia mugatzen du, logikoa denez. Milaka dira sindikatuta ez dauden pertsonak, eta ez zaie interesatzen bloke bat edo bes-

tea, bandera bat edo beste. Bidegabekeria, desberdintasuna, prekarietatea, laneko heriotzak, subiranotasun gabezia... Horren guztiaren aurka agertu nahi dute, langile guztiei eragiten dieten gaiak baitira.

Horrek esan nahi du M1ean sindikatu eta langile guztiek bat eginda agertu beharko luketela? Nire ustez, politika sindikal bateratuak ez dauden bitartean, iruzurra eta hipokrisia litzateke. Euskal Herriko kaleek, enegarren aldiz, errealtate sindikal tristetia islatu zuten berritoki; eta protagonismo, dogmatismo eta burokrazia asko ezabatu beharko litzateke errealtate horretatik. ●